

«POBREZIA» KONTZEPTUA

Jarduera honekin, zera landuko dugu

GJHekin egin ditugun ekintza zehatzak aztertzea.

Logikaz hausnartzea eta lana taldean egitea.

GJHak elkarri lotutako errealitate konplexuak direla ulertzea.

GJH guztiak, 16.a izan ezik.

Iraupena

Saio bat.

Beharko dugun materiala

Dimentsio anitzeko pobreziaren infografia [Esteka](#)

Aurretiazko oharra

Ikasleei pobrezia zer den galdetuz gero, baliabide ekonomikorik edo elikagairik ez izatea dela erantzungo lukete. Baina pobrezia ez da diru-sarrerarik ez izatea bakarrik. Horregatik, jarduera honen bidez, «dimentsio anitzeko pobrezia» kontzeptua zer den azalduko diegu. Kontzeptu horrek hiru dimentsio hartzen ditu kontuan pobrezia zehazteko orduan, eta dimentsio horietako bakoitzean hamar adierazle daude. Horri buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, hona jo dezakezue: [2022 Global Multidimensional Poverty Index \(MPI\) | Human Development Reports \(undp.org\)](#)

Ikasleek «Hitzak zukutzen» dinamikan bota dituzten ideietan oinarrituko gara.

Garapena

Hitzak zukutzen dinamikako hiru faseak egin, baina 1. fasean «pobrezia» hitza esan. Beraz, lagungarri gisa, honela has daitezke:

«Nire ustez, pobrezia hau da:...»

Hortaz, ikasle guztien artean pobreziaren definizio bakarra adostuko dute.

Hausnarketa

Ondoren, infografiaren lehenengo bi pantailak erakutsi eta hausnartu, betiere jardueran pobreziari emandako definizioa gogoan izanik. Gero, galdera batzuk egin:

- Zer iruditzen zaizue munduan dagoen pobre-kopuruari buruzko datua (100 pertsonatik 16)? Gehiago ala gutxiago izango zirela uste zenuten?
- Eta elektrizitaterik gabe bizi diren pertsonen kopurua handia ala txikia iruditzen zaizue (100 pertsonatik 8)? Eta urik eta saneamendurik gabe bizi direnen kopurua (100 pertsonatik 6)?

Galdetu egunero egiten dituzten gauzen artean zer ezingo luketen egin dirurik edo elektrizitaterik ez balute (jokoak, sare sozialak, bideoak...).

- Aipatu ditugun eragozpenak kontuan izanik, garrantzitsua iruditzen al zaizue elektrizitatea ahalik eta jende gehienak izatea?

Ondoren, infografiaren hurrengo pantaila erakutsi, egurrik edo urik gabe egoteari buruzkoa, eta galderak egin:

- Konturatzen al zarete ze garrantzitsua den sukaldean egurra edo erregaia edukitzea? Baldintza horietan presta al daiteke janaririk?
- Pentsatu al duzue inoiz nola egongo zinateketen urik gabe? Adibidez, garbitu ezinik egongo bazinete, zer ondorio izango lituzke horrek zuen osasunean, ongizatean, lagunaren artean, eta abar?

Begiratu infografiaren bukaeran dimentsio anitzeko pobreziaren kontzeptua.

- Egokia iruditzen al zaizue pobrezia horrela aztertzea? Elementu horietakoren batek ba al du loturarik lehen klasean atera den definizioaren batekin?

- Ikusi dugun guztia kontuan hartuta, zuen ustez egokia al da klasean emandako definizioa? Gehiago osatu beharko al litzateke?

Une egokia izan daiteke urrutira joan gabe inguruan dauzkagun pobrezia-egoerez hausnarketa egiteko.

- Zuen inguruan ba al da pobrezian dagoen pertsonarik?
- Identifikatu dimentsio anitzeko pobrezian edo antzeko egoera batean bizitzen diren pertsonen egoera batzuk.
- Pentsatu zer egin daitekeen, limosna emateaz gain. Adibidez, pertsona horietakoren batek zuengana joko balu, jakingo al zenukete nora bideratu laguntza jaso dezan?